

09/3

irizpena

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PERTSONA
LANGABETUAK KONTRATATZEN LAGUNTZEKO
EZOHIKO LAGUNTZAK DEITZEN DIREN
Lan eta Gizarte gaietarako Sailburuaren Agindu
Proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2009 urteko abenduaren 11an



EGAB

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea
Consejo Económico
y Social Vasco

The image features a light blue background with a complex, abstract pattern of overlapping, thin, light blue circles and lines that create a sense of depth and movement. A solid, medium-blue horizontal bar spans across the middle of the page. The text 'irizpena' is written in a white, lowercase, serif font, positioned on the right side of the bar. To its right, the number '09/3' is displayed in a white, sans-serif font, enclosed within a white rectangular box that is partially overlaid by the bar.

irizpena 09/3

I. AURREKARIAK

2009. urteko azaroaren 4an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Lan eta Gizarte Gaietarako Sailaren idazkia sartu da. Beraren bidez, txostena eskatu dute “Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona langabetuak kontratatzen laguntzeko ezohiko laguntzak deitzen diren Lan eta Gizarte gaietarako Sailburuaren Agindu Proiektuari” buruz, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legean ezarritakoaren arabera.

Ekimen honen xedea da Eusko Jaurlaritzak, Lan eta Gizarte Gaietarako Sailaren bidez eta “+Euskadi 09” Planaren zati gisa pertsona langabetuak interes orokor eta gizarte-onurako jarduera berriak jarduera-esparru jakin batzuetan burutzeko kontratatzeko helburuz ematea aurreikusitako laguntzen deialdia erregulatzea da.

Berehala dokumentuaren kopia igorri zitzaizen Batzordeko Osoko Bilkuraren kide guztiei bere proposamenak eta iritzia igor zitzaizen eta horien berri Lan Batzorde egokiari emateko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduko Araudian ezarritakoaren arabera. 2009. urteko azaroaren 18an Gizarte Garapenerako Batzordeak Irizpen Proiektu hau erabaki du abenduaren 11 ospatzen den Osoko Bilkurara aurkezteko. Data horretan gehiengoz onetsi da EGABn UPV/EHUaren ordezkariaren boto partikularrekin.

II. EDUKIA

Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona langabetuak kontratatzen laguntzeko ezohiko laguntzak deitzen diren Lan eta Gizarte gaietarako Sailburuaren Agindu Proiektuaren testuak arrazoien azalpena, 18 artikulua, bi Xedapen Gehigarri, Amaierako bi eta bost Eranskin ditu, diru-laguntzak bideratzeko bete beharreko inprimakiak dituztenak. Laburbilduz, bere edukia honakoa da:

Eusko Jaurlaritzak “+Euskadi 09” Plana abiarazi du ezohiko neurrien pakete baten bidez Euskadiko krisialdi ekonomikoko oraingo egoera arintzeko, barruko eskariaren, kontsumo pribatuaren eta kapital-eraketa gordinaren beherakada nabarmen eta industria bezalako ekoizpen-sektoreen suntsiketa eta eraikuntza bezalako beste batzuen susperraldi moteleko eszenario baten aurrean. Ekonomiaren ahultasunak eragin handia du enpleguan, eta langabezia nabarmen hazi da.

Testuinguru horretan, Jaurlaritzak, Lan eta Gizarte Gaietarako Sailaren bitartez, Agindu honetan Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren barruan

erabakitako ezohiko laguntzak ezartzen ditu krisialdiak zuzenago eragindako pertsoneri kasu egiten laguntzeko: bere enpleguak galdu dituzten eta langabeziako laguntzako prestaziorik jasotzen ez duten pertsoneri edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenei.

Aurrekontuko zuzkiduraren zenbatekoa 63 milioi eurokoa izango da, eta diru-laguntzen onuradunak izango dira irabazteko asmorik gabeko hurrengo erakunde edo pribatu hauek izango dira:

- a) Udalak, Udalerrien Mankomunitateak, Partzuergoak, Taldeak, Zerbitzuen Taldeak eta gainerako Tokiko Erakundeak edo Elkarrekin/ Hauen mendeko edo lotutako erakundeak (Toki eta Eskualdeko Lan eta Ekonomia Garapenerako Agentzia, Behargintza) eta EAEn legez eratu eta nortasun juridiko independentea duten gainerako Tokiko Garapenerako Erakundeak.
- b) EAEn helbidea duten irabazteko asmorik gabeko erakundeak.
- c) Laneratzeko Enpresak (Autonomiako arauaren arabera eratu eta erregistratuta).

Era berean, diru-laguntzaren onuradunak ere izan ahalko dira EAeko enpresa arruntak, bere forma juridikoa edozein dela ere. Kasu haueetan, beharrezkoa izango da enpresa eskatzaileak proiektuarekin batera jarduera garatu behar duen Udalak edo Udalek egindako interes orokor edo gizarte-onurako kalifikazioa ere aurkeztea.

Diru-laguntzaren xede diren lan-kontratuak lanaldi osoko kontratuak izango dira eta diruz lagundu beharreko gehieneko aldia sei hilabetekoa izango da. Lansaria garatu beharreko jardueraren arabera egokia dena izango da, erreferentziako sektoreko hitzarmenaren gutxienezkoa bermatuta eta, oro har, 2 kontratu baino gehiago diruz laguntzea dakarren jarduketa aurkezten duenean, kontratatutako pertsonen %30a gutxienez Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren hartzailea izan behar da.

Egindako kontratuak interes orokorreko eta gizarte-onurako jarduera berriak burutzeko izango dira hauek bezalako jarduera-esparruetan:

- Teknologia berriak.
- Energia berriztagarriak.
- Zuntz optiko bidezko Banda Zabaleko azpiegitura berriak garatzea.
- Ingurumenarekin lotutako lanak: natur ingurumena kontserbatu eta mantentzea, hondakinen kudeaketa eta tratamendua.
- Birziklatzea eta baliabideak berriro erabiltzea.
- Hezkuntza eta eskolako ekipamenduak mantentzea.
- Kultura, hezkuntza eta osasuna sustatzea.
- Turismo, aisialdi eta kirolarekin lotutako jarduerak.
- Arte eta ondarea zaharberritzea.

- Hurbiltasuneko zerbitzuak.
- Erkidegorako zerbitzuak.
- Landa eta hiriko ingurunea mantendu eta lehengoratzea.
- Gizarte-onurako jarduera eta enplegu berriak ahalbidetzen dituen beste edozein esparru.

Programak 12 hilabeteko indarraldia izango du, agindua Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratu ondoko egunetik aurrera zenbatuta. Momentu horretan indarrean sartzen da eta, nolana ere, aginduaren indarraldia fondoak erabilgarri egoteak erabakitzen du.

Aurretik ere esan dugun bezala, diru-laguntzarako eskubidea sortuko du EAEn erroldatuta eta Estatuako Enpleguako Zerbitzu Publikoan (SPEE) edota Laneko Euskal Zerbitzuan (LANBIDE) izena emanda dauden enplegu-eskatzailleak kontratatzeak, baldin eta pertsona horiek Diru-sarrera Bermatzeko Errenta jasotzeko eskubidearen titularrak badira, hala gizarteratze eta babes sozialerako oinarrizko errentaren bere modalitatean nola laneko diru-sarreraren errenta osagarri gisako modalitatean, edo langabetuko izaera langabeziako kotizaziopeko prestazioa jasotzen ez duten pertsonak badira.

Erakunde onuradunek hautagaitzak eskatuko dizkiote Estatuako Enpleguako Zerbitzu Publikoari (SPEE) edota Laneko Euskal Zerbitzuari (LANBIDE), eta SPEEek eta LANBIDEk hautagaiak aukeratu dituzte. Erakunde onuraduna, LANBIDEko Enplegurako Orientazio Zerbitzuaren laguntza izango duena hautagaiaren egokitasun maila identifikatzeko, kontratatu beharreko pertsonen behin betiko aukeraketa egiten duena izango da.

Zenbatekoari dagokionez, fondo galdurako diru-laguntzaren bidez, oro har, kontratatuko langileen lansarien kostua eta enpresa enplegatzaileari dagozkion Gizarte Segurantzarako kuotak hilabeteko 1.500 euroko zenbatekoarekin finantzatu dira lanaldi osoko kontratu bakoitzeko eta, kontratu bakoitzaren benetako iraupena alde batera utzita, kontratazioko aurreneko sei hilabeteak baino ez dira diru-laguntzaren xede izango.

Aginduan erregulatutako laguntzei heltzeko interesa duten erakundeek bere eskabidea aurkeztu beharko dute eranskinean jasotako ereduarekin bat etorritik. Eta aipatutako eskabide hori Berrikuntza Soziolaboraleko Zuzendaritzari igorriko diote. Berau, izapidetzeko, beharrezko agiriekin batera aurkeztu behar dute Lan eta Gizarte Gaietarako Sailaren Lurraldeko Ordezkaritzetan.

Eskabidearekin batera, beste agiri batzuen artean, Memoria bat aurkeztu behar du. Memoria honek aginduaren eskakizunak eta laguntzak esleitzeko irizpideak betetzen dituela egiaztatzeko informazio nahikoa jaso behar du. Eskabideak aurkezteko epearen hasiera agindua indarrean sartzen

den egunarekin bat etorriko da, eta zabalik etengabe mantenduko da bere indarraldia bukatzeko eguna arte. Eskabideak ebazteko eskudun organoa Berrikuntza Soziolaboraleko Zuzendaritza izango da eta eskabideak ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da. Jarraipenari eta kontrolari dagokienez, Lan eta Gizarte Gaietarako Sailak beharrezko ekintzak egin ahal izango ditu aginduak bilatutako xedek betetzea bermatzeko eta, aldi berean, Jarraipen Batzordea osatuko da Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren esparruan. Honek hileko informazioa jasoko du eskabideen eta hartutako ebazpenen gainean, ekimen honen azken ebaluazioa egiteko helburuz.

III. GOGOETAK

09/3 **i**

Irizpenaren xede den Agindu Proiektuak ezohiko laguntzak erregulatzeko dituzten pertsona langabetuak kontratatzea laguntzeko. Laguntza hauek 63 milioi euroko zuzkidura dute eta 7.000 lagun kontratatzea ahalbidetuko dute. Pertsona hauek sei hilabeteko lanaldi osoko kontratuak eta egokiak diren sektoreko hitzarmenen arabera lansariak izango dituzte. Hurrengo baldintzak betetzen dituzten pertsona langabetuak izango dira: a) kotizaziopeko prestazioa jasotzen ez dutenak, edo b) Diru-sarreak Bermatzeko Errentaren onuradunak direnak, kontratatu beharreko gutzitzailearen gaineko %30eko ehuneko batean.

Ekimen hau "+Euskadi'09" Planaren barruan jasotzen da. Plan hau Eusko Jaurlaritzaren ezohiko proiektua da, salbuespenezko neurriak eta iragankorrak jasotzen dituena, eta diseinatuta atzeraldiaren oraingo egoeragatik. Honek gure Erkidegoan langabezia nabarmen handitzea eragin baitu.

Euskadiko CESek kontsultatu dioten agindua positiboki baloratzen du, eta bereziki bi alderdi nabarmendu nahi ditu:

1. Elkarrizketa Sozialaren bidez, arazo errealean aurrean (langabeziaren eta prestazioko eskabideen hazkundea, eta bazterketa sozialeko arrisku geroz eta handiagoa) konpontzera zuzenean bideratutako konponbide berriei ekiten diete.
2. Diruz lagundutako jarduerak (interes orokor eta gizarte-onurako jarduerak berriak, teknologia berriak, energia berriztagarriak, komunitaterako zerbitzuak,...) bezalako esparruetan ez dituzte erakunde eskatzaileen jarduerak normalak ordezkatzeko. Hori dela kausa, ez dituzte ohiko langileak ordezkatzeko eta lanpostu berriak sortuko dituzte.

Hala eta guztiz ere, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren pertsona hartzaileen kolektiboaren tratamenduak arreta berezia jaso du; CESeK uste du egiturazko arazoak konpontzeko, neurriak ere egiturazkoak izan behar direla, baina baloratzen du hau bezalako abagunezko neurri batean ere kolektibo hau kontuan hartzea.

IV. ONDORIOAK

Euskadiko CESeK Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona langabetuak kontratatzen laguntzeko ezohiko laguntzak deitzen diren Lan eta Gizarte gaietarako Sailburuaren Agindu Proiektuaren izapidetza egokitzen jotzen du, organo aholku-emaila honek egin dituen gogoetak eginda.

09/3i

Bilbon, 2009. urteko abenduaren 11an

Lehendakariaren ikus onetsia
José Luis Ruiz García

Idazkari Nagusia
Javier Muñecas Herreras

Eranskina

Eranskina

UPV/EHUREN ORDEZKARIAREN BOTO PARTIKULARRA

Boto partikularra, ondoko gai honi buruzko erabaki proposamenari dagokiona: “agindu proposamena, euskal autonomia erkidegoan lanik gabe dauden pertsonak kontratatzea bideratzeko aparteko diru-laguntzetarako deialdia egin duena”.

Idazki hau sinatu duenak ezezko botoa eman dio erabaki proposamen horri. Ondoko hauek dira ezezkoaren zioak:

- 09/3i
- a) Nire iritziz, ez da egokia egin den balorazioa, hots, gizarte-elkarrikeraren bidez langabeziaren hazkuntzak sortzen dituen arazoak eta geroz eta nabarmenagoa den gizarte-bazterkeriaren arriskua konpontze aldera “irtenbide zehatzak abiarazten direla” adieraztea, zeren eta kontratazioak aldi baterakoak izateak ez baitu eragozten Euskal Autonomia Erkidegoko langileek jasaten duten aldibateratasun masiboari doakion arazo larria. Horrezaz gainera, Aurreikusirik dauden kontratazioak oso gutxi dira, krisia hasi zenetik galdu diren lanpostuei begiratuz gero.
 - b) Ez nator bat balorazio honekin: diruz laguntzen diren jarduerak ez dira erakunde eskatzaileen ordezkioak izango; izan ere, erakunde horiek ari dira diruz laguntzen diren jarduera asko eta asko burutzen, neurri eta intentsitate ezberdinez bada ere.
 - c) Sarreren Bermearen Errentaren onuradun diren pertsonen doazkien kontratazioen % 30eko erreserbaren xedea denez, bazterkeriaren aurka lan egiteari dagokion helburuak, hori lortu nahi baita, iraupen luzeagoko kontratuak egiteko eskatzen du, eta bai proposamenean jaso ez diren beste zenbait neurri osagarri bideratzeko ere, hala nola, seme-alabak jagoteko eta menpeko beste pertsona batzuk zaintzeko zerbitzuak.

Bilbon, 2009ko abenduaren 11n.

Sin.: Mikel de la Fuente Lavín
 EEGABren ordezkio batzordekidea, Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkari gisa